



CONVOCATORIA A FAVOR DE LAS ASOCIACIONES DE LA LOCALIDAD PARA LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES CULTURALES DURANTE EL AÑO 2026

El Ayuntamiento de Villava, dentro de los límites que determinan su presupuesto y a través del Servicio de Cultura, convoca ayudas a favor de las Asociaciones Culturales de la localidad para la realización de actividades artísticas y culturales durante el año 2026.

Considerando la necesidad de fomentar y potenciar una oferta cultural de calidad, diversa y de interés para la ciudadanía por parte de las Asociaciones Culturales de la localidad, el Servicio de Cultura hace pública esta Convocatoria de ayudas para el año 2026, con arreglo a las siguientes:

BASES

1ª OBJETO, ÁMBITO, IGUALDAD Y FINALIDAD

1.1. La presente convocatoria tiene por objeto regular las ayudas para fomentar las actividades artísticas y culturales realizadas por parte de las asociaciones culturales de la localidad.

1.2. Estas actividades serán llevadas a cabo desde el ámbito asociativo y pretenden alcanzar un impacto positivo en la igualdad de mujeres y hombres, en cumplimiento del artículo 18 de Ley Foral 17/2019, de 4 de abril, de Igualdad entre Mujeres y Hombres.

1.3. La finalidad de la convocatoria es intensificar la actividad cultural en Villava para facilitar el acceso de todas las personas a la cultura y a participar libremente en la vida cultural, apoyando a las asociaciones culturales de la localidad en la realización de actividades artísticas y culturales que se consideren de particular interés y cumplan con el objeto señalado.

2ª.- IMPUTACIÓN PRESUPUESTARIA E IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN

2.1. Estas subvenciones se imputarán a la partida 3340 4890020 denominada "Subvención Entidades Culturales" en el Presupuesto de Gastos del Ayuntamiento de Villava para el año 2026.

2.2. La cuantía de la ayuda no podrá ser superior al 80% del presupuesto aceptado.

El presupuesto aceptado será el resultado del presupuesto presentado por la entidad, minorado en las cuantías correspondientes a gastos de actividades que, a juicio de la Comisión Evaluadora, no resulten necesarias para el desarrollo del proyecto o bien gastos no subvencionables, de acuerdo con lo establecido en la base 8.2. de esta convocatoria.

Por otra parte, la cuantía de la ayuda para cada entidad solicitante no podrá exceder de 2.600 euros.

2.3. Siempre que se cumplan los límites anteriores y aplicada, en su caso, la minoración correspondiente, la cuantía de la ayuda será la solicitada por la entidad.

3ª.- REQUISITOS

3.1. Los beneficiados de estas ayudas deberán reunir los siguientes requisitos:

- a) Ser una asociación sin ánimo de lucro en cuyos estatutos figure entre sus fines y objetivos la realización de actividades relacionadas con el objeto de esta convocatoria.
- b) Ser una entidad legalmente constituida e inscrita en el Registro de Entidades del Ayuntamiento de Villava.
- c) Tener domicilio social y fiscal en Villava.

3.2. No podrán obtener la condición de beneficiarias aquellas entidades en las que concurra alguna de las circunstancias establecidas en el artículo 13, apartados 2 y 3, de la Ley Foral 11/2005 de 9 de noviembre, de Subvenciones.

3.3. Quedan excluidos las entidades que cuenten con partida nominativa en los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Villava de 2026.

4ª.- PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN

4.1. El plazo de presentación de solicitudes terminará el día 27 de febrero de 2026, a las 14 horas.

4.2. La solicitud de ayuda se presentará en el Registro de la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Villava (Mayor, 22) o en el Registro electrónico del Ayuntamiento (www.villava.es).

5ª.- DOCUMENTACIÓN

5.1. Las solicitudes de ayuda se presentarán conforme al modelo de solicitud recogido en el Anexo I de la presente convocatoria.

5.2. Junto a la solicitud (Anexo I) deberá presentarse los siguientes documentos:

- Documento que acredite su inscripción en el Registro de Entidades del Ayuntamiento de Villava, si es la primera vez que se presenta a la Convocatoria.

- Programa de actividades culturales, conforme al modelo recogido en el Anexo II.

5.3. Si la solicitud de ayuda no reuniera los datos exigidos se requerirá para que en el plazo de diez días se subsane, con indicación de que si no se hiciese se tendrá por desistida la petición, en cuyo caso será dictada la correspondiente resolución, según el artículo 42 de Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (LRJPAC).

6ª.- ÓRGANOS DE TRAMITACIÓN Y EVALUACIÓN

6.1. La tramitación de las solicitudes se efectuará por el Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Villava en régimen de concurrencia competitiva.

6.2. Una Comisión estudiará y valorará las solicitudes presentadas y elevará a Alcaldía la correspondiente propuesta de concesión de subvenciones. Esta Comisión dispondrá de dos meses, desde la finalización del plazo de presentación, para elaborar su propuesta, que será vinculante.

6.3. La Comisión evaluadora estará compuesta por:

- Presidente: El Concejal de Cultura.
- Vocales: Los Sres/as. concejales de la Comisión de Cultura.
- Secretario: El Técnico de Cultura del Ayuntamiento.

7ª.- CRITERIOS DE VALORACIÓN

7.1 Para determinar la cuantía a adjudicar a cada entidad solicitante, la Comisión tendrá en cuenta los siguientes criterios:

1) Trayectoria de la Asociación (10 puntos):

- 1.1. Número de socios/as de la Asociación (hasta 5 puntos).
 - Asociaciones hasta 10 socios/as: 1 punto.
 - Asociaciones hasta 20 socios/as: 2 puntos.
 - Asociaciones hasta 40 socios/as: 3 puntos.
 - Asociaciones hasta 60 socios/as: 4 puntos.
 - Asociaciones hasta 80 socios/as: 5 puntos.
- 1.2. Actividades relevantes de la asociación durante los tres últimos años, 1 punto por actividad relevante por año (3 puntos).
- 1.3. Formación de las personas responsables de la Asociación en gestión y promoción asociativa, 1 punto por responsable (hasta 2 puntos).

2) Calidad e interés del programa (55 puntos):

- 2.1. Respuesta del programa a un diagnóstico de necesidades culturales (hasta 10 puntos).
- 2.2. Coherencia entre los objetivos y las actividades previstas (hasta 10 puntos).
- 2.3. Interés cultural y artístico del proyecto: calidad, innovación (hasta 25 puntos).

- 2.4. Programa que proponga actividades no promovidas por otros agentes culturales locales (hasta 10 puntos).

3) Impacto y difusión del proyecto (15 puntos):

- 3.1. Impacto del proyecto en la población y el panorama cultural de la localidad (hasta 10 puntos).
- 3.2. Plan de comunicación (acciones específicas que se llevarán a cabo para difundir el proyecto y/o las actividades (hasta 5 puntos).

4) Viabilidad y coherencia económica del proyecto (20 puntos):

- 4.1.) Coherencia en las partidas de ingresos y gastos y viabilidad del proyecto (hasta 10 puntos).
- 4.2.) Porcentaje de la subvención solicitada sobre la totalidad del presupuesto del proyecto (hasta 10 puntos):
- 80 %: 1 puntos
 - 75 %: 2 puntos
 - 70 %: 3 puntos
 - 65 %: 4 puntos
 - 60 %: 5 puntos
 - 55 %: 6 puntos
 - 50 %: 7 puntos
 - 45 %: 8 puntos
 - 40 %: 9 puntos
 - 35 %: 10 puntos

7.2. Para posibilitar la valoración de los programas, la entidad solicitante deberá cursar su solicitud conforme al modelo que figura en el Anexo II de esta convocatoria.

7.3. En aplicación de los criterios anteriores se otorgará un máximo de 100 puntos a cada entidad por el Programa presentado, y no se considerarán aquellos programas que no obtengan un mínimo de 50 puntos.

7.4. Aquellos datos que se cumplimenten de manera inexacta o que resulten temerarios serán excluidos de la valoración.

8ª.- ACTIVIDADES OBJETO DE AYUDA

8.1. Las entidades podrán presentar como actividades objeto de subvención las relacionadas con la difusión de las humanidades (conferencias, charlas, cursos, investigaciones, congresos...), las artes escénicas (teatro, danza, música, lírica, circo...), las bellas artes (pintura, escultura, fotografía, videoarte...), literatura y animación a la lectura (narraciones orales, cuenta cuentos, recitales, certámenes...), cine y audiovisuales, las acciones en defensa del patrimonio artístico-cultural de la villa y las actividades de naturaleza sociocultural cuyo objetivo sea la promoción asociativa, así como cualquier otra actividad que se derive de los objetivos de la entidad y sea congruente con el objeto de esta convocatoria.

8.2. No tendrán la consideración de subvencionables las siguientes actividades y gastos:

1. Las actividades de carácter docente, previstas o paralelas a programas de enseñanza reglada.
2. Las actividades de carácter deportivo.
3. Los aperitivos, chocolatadas, comidas y actividades similares.
4. Los campamentos, estancias y viajes de más de un día de duración
5. Las inversiones y adquisiciones de material, equipos o bienes de naturaleza inventariable que supongan un incremento de patrimonio.
6. Los gastos de funcionamiento ordinario, los protocolarios y de representación.

8.3 Las actividades objeto de ayuda deberán cumplir las siguientes condiciones:

1. Que estén abiertas a toda la población, entendiéndose como tal, la no discriminación por género, raza, lengua, ideología, orientación, etc.
2. Que fomenten la relación y la convivencia, la elección libre y el desarrollo personal de la ciudadanía.
3. Que potencien el desarrollo de la expresión, la creatividad, la participación y la responsabilidad.
4. Que respondan a las necesidades e intereses del sector o sectores de población para las que han sido programadas.
5. Que tengan un interés sociocultural y no enfrenten culturas.
6. Que no estén incluidas en otras líneas de ayuda del Ayuntamiento.

9ª.- RESOLUCIÓN DE CONCESIÓN

9.1. La concesión de las ayudas se efectuará por Resolución de Alcaldía, que se dictará en un plazo máximo de **dos** meses contados a partir del día siguiente al de finalización del plazo para la presentación de las solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que se haya publicado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud.

9.2. Se comunicará a las entidades solicitantes la resolución de la Convocatoria y las actividades objeto de la ayuda a través de la dirección de correo electrónico facilitada por la entidad en su solicitud.

Las ayudas se entenderán encaminadas a cubrir parte del déficit originado por el coste de las actividades o programas de la entidad solicitante.

9.3. Contra la desestimación expresa o presunta los interesados podrán interponer en el plazo de un mes desde su publicación recurso de alzada ante el Ayuntamiento de Villava, conforme a lo dispuesto en la legislación sobre procedimiento administrativo.

10ª.- PAGOS, PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN

10.1. Dada la naturaleza de los posibles beneficiarios de las ayudas y de la actividad descrita en el objeto de la convocatoria procede la realización de pagos en concepto de anticipo.

10.2. El Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Villava considera que la actividad subvencionada es de interés social, los posibles beneficiados son entidades sin ánimo de lucro, y no disponen de fondos suficientes ni de mecanismos adecuados para conseguirlos, que les permitan afrontar anticipadamente los gastos que suponen la realización de las actividades de los programas.

10.3. Por ello, se articula con carácter general la forma de abono de un anticipo del 60% al tiempo de la concesión de la ayuda, es decir, en el momento de la notificación de la resolución de la convocatoria.

10.4. El pago del 40% restante de la subvención se realizará tras la valoración de la memoria de actividades y justificación de gastos que se deberá presentar antes del 16 de diciembre de 2026 en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento (Mayor, 22) o en el Registro electrónico del Ayuntamiento (www.villava.es).

10.5. Las entidades deberán presentar los siguientes justificantes:

- a) Memoria de las actividades realizadas (según Anexo III).
- b) Los elementos impresos y de publicidad.
- c) Las facturas (originales o copias legalmente compulsadas) y sus correspondientes justificantes bancarios de pago.

10.6. Las facturas deberán estar emitidas con posterioridad al 1 de enero de 2026 y conforme al Decreto Foral 205/2004, de 17 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación. La factura deberá recoger los siguientes datos: entidad pagadora, fecha, número de factura, concepto, importe con iva e identificación del expendedor (nombre social, D.N.I. o N.I.F., sello y firma).

Quedan expresamente excluidos los recibos, presupuestos y albaranes.

10.7. La falta de justificación en el plazo establecido, o en el de subsanación que al efecto se conceda, dará lugar a la pérdida del derecho a cobro de los gastos y pagos no justificados.

10.8. Se deberá justificar el total del gasto del programa subvencionado. Así mismo las justificaciones de pago deberán alcanzar, como mínimo, el importe de la subvención concedida.

10.9. La liquidación final de la ayuda consistirá en la aplicación del porcentaje señalado en la concesión de la ayuda a los justificantes de gasto aceptados una vez finalizada la actividad.

11ª.- OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIADOS

11.1. Destinar la ayuda exclusivamente a la realización del programa subvencionado dentro de esta convocatoria, y en general las obligaciones señaladas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

11.2. Las entidades beneficiarias quedarán obligadas a:

- a) Comunicar al Servicio de Cultura cualquier eventualidad en el desarrollo del programa subvencionado en el momento en que ésta se produzca. Cualquier modificación del programa deberá contar con la conformidad previa del Servicio de Cultura, que se otorgará siempre que la modificación no suponga, a juicio del Servicio de Cultura, una alteración sustantiva del proyecto aprobado.
- b) Admitir en todo momento la verificación de la ejecución del programa subvencionado por el Servicio de Cultura.
- c) Toda publicidad de los programas subvencionados deberá especificar que ha recibido la financiación del Ayuntamiento de Villava, incluyendo el logotipo oficial como entidad patrocinadora.
- d) La publicidad de las actividades subvencionadas deberá realizarse en castellano y euskera, y se redactará en un lenguaje no sexista y no discriminatorio.
- e) Comunicar al Servicio de Cultura la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

12.- CONCURRENCIA Y COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES

12.1. La aportación del Ayuntamiento de Villava será compatible con cualesquiera otras subvenciones concedidas, con el mismo objeto, por la Administración de la Comunidad Foral, otras administraciones públicas, otros entes públicos o privados, o particulares. El importe de aquéllas no podrá ser en ningún caso de tal cuantía que, aislada o conjuntamente con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos propios de la actividad objeto de subvención supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

12.2. En el caso de obtención concurrente de subvenciones o ayudas de otras entidades se podrá modificar la ayuda concedida, si la cuantía de todas las ayudas supera el coste de la actividad subvencionada.

12.3. No podrán solicitar estas ayudas las asociaciones culturales que cuenten con una partida nominativa en el Presupuesto de Gastos del Ayuntamiento de Villava de 2026, para el desarrollo de actividades culturales.

13ª.- REINTEGRO

13.1. En el caso de que el beneficiario no justifique adecuadamente la realización del programa aceptado, se procederá a solicitar el reintegro total o parcial de la ayuda abonada y de los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha de reintegro, conforme al principio de proporcionalidad y de acuerdo al artículo 35 de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

14ª.- INFRACCIONES Y SANCIONES

14.1. En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en el Título IV de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

14.2. El procedimiento sancionador será el fijado en el Título V de la Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra.

15ª.- RÉGIMEN GENERAL DE SUBVENCIONES

15.1. En los aspectos no previstos expresamente en las presentes bases reguladoras resultará de aplicación lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, y demás normas de aplicación.

16ª.- RECURSOS CONTRA LA CONVOCATORIA Y LAS BASES REGULADORAS

16.1. Contra los actos dictados en aplicación de las presentes bases podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la notificación o publicación del acto recurrido, sin perjuicio de poder efectuar el requerimiento previo ante el Ayuntamiento de Villava en la forma y plazos determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Villava, enero de 2026

EL ALCALDE



Atarrabiako Udala
Ayuntamiento de Villava
31610 NAFARROA - NAVARRA

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura

Kale Nagusia 38/Calle Mayor 38
Telefonoa/Teléfono 948 33 26 59
cultura@villava.es
C.I.F.: P-31 25800 G

DEIALDIA, HERRIKO ELKARTEEI LAGUNTZAK EMATEKO, 2026. URTEAN ZEHAR KULTUR AKTIBITATEAK EGITEKO.

Atarrabiako Udalak, aurrekontuak ezartzen dizkion mugak kontuan hartuz eta Kultura Zerbitzuaren bitartez, diru-laguntzak emango dizkie herriko kultur elkarteei 2026. urtean zehar kultur proiektuak eta aktibitateak egin ditzaten.

Herriko Kultur Elkarteek garatu behar duten eskaintza kultural kalitatezkoa, anitza eta herritarren interesekoa sustatu eta bultzatzearen beharra kontuan hartuta, Kultura Zerbitzuak 2026. urterako Deialdi hau denen esku jarri nahi du, ondoko oinarriei jarraiki.

OINARRIAK

1. XEDEA, EREMUA, BERDINTASUNA ETA HELBURUA

1.1. Deialdi honen helburua herriko elkarte kulturalak egiten dituzten jarduera artistiko eta kulturalak sustatzeko laguntzak arautzea da.

1.2. Jarduera horiek elkarteen eremuan gauzatuko dira, eta emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa lortu nahi dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 18. artikulua betez.

1.3. Deialdiaren helburua da Atarrabian kultura-jarduera areagotzea, pertsona guztiek kulturarako sarbidea izan dezaten eta askatasunez parte har dezaten kultura-bizitzan, udalerriko kultura-elkarteei lagunduz interes bereziki jotzen diren eta adierazitako helburua betetzen duten arte- eta kultura-jardueretan.

2. AURREKONTUAREN KONTU-SAILA ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

2.1. Diru-laguntza hauek "Elkarte Kulturalentzako Diru-laguntza" izeneko kontu-sailaren kontura ordainduko dira (3340 4890020). Kontu-saila 2026ko Atarrabiako Udalaren Gastuen Aurrekontuan agertuko da.

2.2. Laguntzaren zenbatekoak ezinen du onarturiko aurrekontuaren %80a gainditu. Onarturiko aurrekontua erakundeak aurkeztukoari, Batzorde Ebaluatzailearen iritziz proiektua garatzeko beharrezkoak ez diren edota deialdi

honetako 8.2 oinarrian ezarritakoaren bat ez datozen gastu ez subentzionagarriak

Bestalde, erakunde eskatzaile bakoitzak jaso ahalko duen gehieneko diru-kopurua 2.600 euro izanen dira.

2.3. Aurretik ezarritako mugak betetzen badira eta, hala badagokio, egin beharreko kenketa egin ondoren, erakundeak egokitzen zaion diru-kopurua eskatu ahalko du.

3. BETEBEHARRAK

A) Irabazi-asmorik gabeko elkarte izatea, eta elkarte horren estatutuetan, bere helburuen artean, deialdi honen xedearekin zerikusia duten jarduerak egitea agertzea.

B) Atarrabiako Udaleko Erakundearen Erregistroan legez eratuta eta inskribatuta dagoen erakunde izatea.

C) Egoitza soziala eta fiskala Atarrabian izatea.

3.2. Ezin izanen dira onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikulua 2. eta 3. zenbakietan ezarritako egoeraren batean dauden erakundeak.

3.3. Kanpoan geratzen dira Atarrabiako Udalaren 2026ko Aurrekontu Orokorretan partida izenduna duten erakundeak.

4. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

4.1. Eskaerak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 27an, 14:00etan, amaitzen da.

4.2. Eskaerak Atarrabiako Udaleko Herritarrak Hartzeko Bulegoko Erregistroan aurkeztuko dira (Kale Nagusia, 22) edo Udaleko Erregistro Elektronikoan (www.villava.es).

5. DOKUMENTAZIOA

5.1. Diru-laguntza eskabidea, deialdi honetako I. Eranskinean jasotzen den eskabide ereduarekin bat etorriko da.

5.2. Eskabidearekin batera (I. eranskina), agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Atarrabiako Udaleko Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria, deialdian aurkeztzen den lehen aldia bada.
- Kultur aktibitateen egitaraua, II. Eranskineko ereduari jarraiki

5.3. Diru-laguntza eskaerak eskaturiko datuak jasoko ez balitu eskaera eginen zaio eskatzaileari, hamar eguneko epean datuok zuzen ditzan. Halakorik egiten ez badu, eskaera ez egintzat joko da. Kasu honetan, dagokion ebazpena eman da, Administrazio Publikoen Lege Araubideari eta Administrazio Prozedura Komuneke 42. artikuluari jarraiki.

6. IZAPIDETZEKO ORGANOAK ETA EBALUAZIOA

6.1. Aurrabiako Udaleko Kultura Zerbitzuak izapidetuko ditu eskaerak, norgehiagoka bidez.

6.2. Batzorde ebaluatzaile batek, aurkezturiko eskaerak aztertu eta subentzio-emate proposamena helaraziko dio Alkateari. Batzorde honek, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, bi hilabeteko epea du proposamena lantzeko, loteslea izan dena.

6.3. Batzorde ebaluatzailea ondoko kideek osatuko dute:

- Batzordeburua: Kultura Zinegotzia.
- Batzordekideak: Udaleko Kultura Batzordeko zinegotzi jaun/andreak.
- Idazkaria: Udaleko Kultura Teknikaria.

7.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

7.1 Elkarre eskatzaile bakoitzari eman beharreko diru-kopurua zehazteko, Batzordeak ondoko irizpideak hartuko ditu kontuan:

1) Elkarrearen ibilbidea (10 puntu):

1.1) Elkarrearen bazkide kopurua (5 puntu arte)

- 10 bazkide arteko Elkarreak: puntu 1.
- 20 bazkide arteko Elkarreak: 2 puntu.
- 40 bazkide arteko Elkarreak: 3 puntu.
- 60 bazkide arteko Elkarreak: 4 puntu.
- 80 bazkide arteko Elkarreak: 5 puntu

1.2) Emanaldi esanguratsuak azken 3 urteotan. Puntu 1 emanaldi bakoitzeko urtean (3 puntu).

1.3) Pertsona arduradunen formazioa elkarregintzaren kudeaketaren eta sustapenaren arloan. Puntu bat arduradun bakoitzeko (2 puntu arte).

2) Programaren kalitatea eta interesa (55 puntu):

2.1.) Programak beharren diagnosi bati ematen dion erantzuna (10 puntu arte),

2.2.) Koherentzia, helburuen, metodologiaren eta jardueren artean (10 puntu arte),

2.3.) Proiektuaren interes kulturala eta artistikoa: kalitatea, berrikuntza (15 puntu arte),

2.4.) Herriko beste eragin kultural batzuek burutzen ez dituzten aktibitateak proposatzen dituen programa (5 puntu arte),

3) Proiektuaren eragina eta zabalkundea (15 puntu):

- 3.1.) Proiektuak herriko egoera kulturean duen eragina (10 puntu arte).
- 3.2.) Komunikazio Plana (proiektuaren edo aktibitateen berri emateko egiten diren ekintza zehatzak) (5 puntu arte).

4) Proiektuaren bideragarritasun eta koherentzia ekonomikoa (20 puntu):

4.1.) Koherentzia sarreren eta gastuen kontu-sailen artean eta proiektuaren bideragarritasuna (10 puntu arte).

4.2.) Eskaturiko diru-laguntzaren portzentajea proiektuaren osotasunarekiko (10 puntu arte):

- %80: puntu 1
- %75: 2 puntu
- %70: 3 puntu
- %65: 4 puntu
- %60: 5 puntu
- %55: 6 puntu
- %50: 7 puntu
- %45: 8 puntu
- %40: 9 puntu
- %35: 10 puntu

7.2. Programak baloratu ahal izateko, erakunde eskatzaileak deialdi honetako II. Eranskinari jarraiki egin beharko du eskaera.

7.3. Aurreko irizpideak aplikatuta 100 puntu eman ahalko zaizkio gehienez ere Elkarte bakoitzari aurrezko Programatik. 50 puntu eskuratzen ez dituzten programak ez dira kontuan hartuko.

7.4. Zehaztasunik gabeko datuak edota ausartegiak direnak baloraziotik kanpo geratuko dira.

8. DIRU-LAGUNTZA JASO AHAL DUTEN JARDUERAK

8.1. Elkarrekin humanitateen (hitzaldiak, mintzaldiak, ikastaroak, ikerketak, kongresuak..), arte eszenikoen (pintura, eskultura, argazkigintza, bideoarte..), literaturaren eta irakurketaren (ahozko narrazioak, ipuin kontalariak, errezitaldiak, sariketak..), zinearen eta ikus-entzunezkoen zabalkundea helburu duten aktibitateak aurrez ditzakete diru-laguntza jaso ahal izateko. Halaber, herriko arte- eta kultura-ondarea babesteko ekimenak eta herritarren sustapena helburu duten izaera soziokulturalekoak eta Elkarrekin helburuetatik eratorritako bestelako aktibitateak betiere deialdiaren xedearekin bat egiten dutenak.

8.2. Ez dira diru-laguntza gai izanen ondoko aktibitate eta gastuak:

1. Eskolako aktibitateak, irakaskuntza-egitarauetan aurreikusten direnak edo hauekin batera egitekoak
2. Kirol aktibitateak.
3. Hamaiketakoak edota mokadutxoak, txokolate-jateak, bazkariak eta antzekoak.
4. Kanpaldiak eta egun batetik gorako iraupena duten aktibitateak, egonaldiak eta bidaiak.

5. Materialean, ekipoetan edota ondasun inbentariagarrietan egindako inbertsioak eta hauen erostea, ondarearen handitzea suposatzen dutenak.
6. Ohiko funtzionamendu-gastuak, protokolo arlokoak eta ordezkartzakoak.

8.3. Aktibitate diru-laguntza gaiak ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

1. Herritar guztientzat irekiak izatea, hots, genero, arraza, hizkuntza, orientabidea, eta abarreatatik bereizkeriarik ez gertatzea.
2. Harremanak eta elkarbizitza, aukera librea eta herritarren norbanakoaren garapena sustatzea.
3. Adierazpenaren garapena, sormena, parte-hartzea eta erantzukizuna bultzatzea.
4. Programa zuzendurik dagoen biztanleria sektore edo sektoreen behar eta interesei erantzutea.
5. Interes soziokulturala izatea eta kulturen arteko liskarrik ez bultzatzea.
6. Udalak ematen dituen beste diru-laguntza-lerro baten baitan ez egotea.

9. EMATE ERABAKIA

9.1. Laguntzen emakida Alkatearen Ebazpenaren bidez egingen da. Ebazpena **bi** hilabeteko epean emanen da eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoko egunetik hasita.

Epe hori akitu ondoren ebazpen berariazkorik ez bada, eskaera ez onartuzat joko da.

9.2. Erakunde eskatzaileei, Deialdiaren erabakiaren eta diru-laguntza izango duten aktibitateen berri emanen zaie. Horretarako eskabidean agertzen den helbide elektronikoa erabiliko da.

Diru-laguntzak, Erakunde eskatzailearen aktibitate edo egitarauen gastuek sorturiko defizitari aurre egiteko zuzenduko dira.

9.3. Interesatuak gorako helegitea paratu ahalko dute Atarrabiako Udalaren aurrean, eskaeraren ez onartze berariazkoaren edota balizkoaren aurka hilabeteko epean, administrazio prozeduraren legedian ezarritakoari jarraiki.

10. ORDAINKETA, EPEAK ETA JUSTIFIKATZEKO ERA

10.1. Diru-laguntzen balizko onuradunen eta deialdian zehaztutako aktibitatearen izaera kontuan hartuta, aurrerakin gisako ordainketak egitea erabaki da.

10.2. Atarrabiako Udalaren Kultura Zerbitzuaren aburuz diruz lagundutako aktibitatea interes sozialekoa da, balizko onuradunak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira eta programetako aktibitateek sortutako gastuak aurretiaz ordaindu ahal izateko diru-funts nahikorik ez dute eta ezta ere hauek eskuratzeko baliabide nahikorik eta egokirik.

10.3. Hori dela eta, aurrerakin gisako ordainketa bat eratzen da, orokorrean ordainduko dena. Ordainketa hau %60koa izanen da eta laguntza ematen den unean egingen da; hau da, deialdiaren ebazpenaren jakinerazpenarekin batera.

10.4. – Diru-laguntzaren gainerako % 40a jardueren memoria baloratu eta gastuak justifikatu ondoren ordainduko da. Memoria eta gastuen justifikazioa 2026ko abenduaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaleko Herritarrei Arreta Emateko Bulegoan (Nagusia, 22) edo Udaleko Erregistro Elektronikoa (www.villava.es).

10.5. Erakundeek ondoko egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte:

- a) Egindako aktibitateen memoria (III. Eranskinari jarraiki)
- b) Publizitate euskarri inprimatuak
- c) Fakturak (jatorrizkoak edo legez konpultsatutako kopiak) eta dagozkien banku-ordainagiriak.

10.6. Fakturak 2026ko urtarrilaren 1aren ondotik jaulkiak izan beharko dira eta fakturatzeko betekizunak arautzen dituen Araudia onartzen duen maiatzaren 17ko 205/2004 Foru Dekretuarekin adostasunean. Fakturan datu hauek jasoko dira: erakunde ordaintzailea, data, faktura zenbakia, kontzeptua, zenbateko BEZa barne eta igorlearen identifikazioa (izen soziala, N.A.N. edo N.F.Z.), zigilua eta sinadura).

10.7. Ezarritako epean, edota horretarako ematen den datuak aldatzekoan, justifikaziorik egiten ez bada, justifikatu gabeko gastu-ordainketak kobratzeko eskubidea galduko da.

10.8. Diruz lagundutako programaren osotarako gastua justifikatu beharko da. Halaber, ordainketen justifikazioak, gutxienez, emandako diru-laguntzaren kopuruaren halakoak izanen dira.

10.9. Laguntzaren azken kitapena emakidan zehaztutako portzentajea aktibitatea amaitu ondoren onarturiko gastuen egiaztagiriei aplikatu ondoren sortzen dena izanen da.

11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

11.1. Diru-laguntza deialdi honen baitan diruz lagundutako programa egiteko baino ezinen da erabili. Halaber, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

11.2. Erakunde onuradunek ondoko betebeharrak izanen dituzte:

- a) Diruz lagunduriko egitarauetan sor litekeen edozein gertagarritasunaren berri Kultura Zerbitzuari ematea berau izaten den momentu berean. Programan eman ahal den edozein aldaketak Kultura Zerbitzuaren aurretiazko adostasuna beharko du, betiere aldaketa horrek, Kultura

Zerbitzuaren aburuz, onarturiko programan aldaketa funtsezkorik suposatzen ez badu.

- b) Diruz lagunduriko proiektuen gauzatzearen egiaztapena edozein unetan onartzea. Egiaztapena Kultura Zerbitzuak egingen du.
- c) Diruz lagundutako programen publizitate orok Atarrabiako Udalaren finantziazioa jaso duela zehaztu beharko du, baita erakunde babesle gisa duen logotipo ofiziala ere.
- d) Diruz lagundutako jardueren publizitatea gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko da, eta hizkera ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabiliz idatziko da.
- e) Kultura Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio diruz lagundutako aktibitateek bestelako diru-laguntzarik, diru-sarrerarik edota baliabiderik jaso duten. Jakinarazpen hau berau jakin bezain laster egin beharko da, eta edozein kasutan, jasotako diru-funtsak aplikatzearen justifikazioaren aurretik.

12. BESTELAKO DIRU-LAGUNTZEKIKO BATERAGARRITASUNA

12.1. Atarrabiako Udalaren ekarpena bateragarria izanen da, xede bera helburu, Foru Komunitateko Administrazioak, beste administrazio publiko batzuek, bestelako erakunde publiko zein pribatuek edota partikularrek eman ahal dituzten bestelako diru-laguntzekin. Haien zenbatekoak ezinen du gainditu inolaz ere, bakarrik edota bestelako diru-laguntzei, laguntzei, sarrerei edota diru-laguntza gai den berak sorturiko sarrerei gehituta, aktibitatearen kostua.

12.2. Beste erakunde batzuetatik norgehiagoka bidez diru-laguntzarik edota laguntzarik jaso bada, emandako diru-laguntza aldatu ahalko da, laguntza guztien osotarako zenbatekoak diruz lagunduriko aktibitatearen kostua gainditzen badu.

12.3. Laguntzarik ezinen dute eskatu, Atarrabiako Udalaren 2026eko aurrekontuan, kultur aktibitateak garatzeko, euren izenean kontu-sailen bat duten kultur elkarteek.

13. DIRU-ITZULKETAK

13.1. Onuradunak, onartutako programa egoki betetzen dela ez badu ziurtatzen, ordaindutako laguntza osoki edo partzialki eta sortutako interesak ere (diru-laguntza ordaintzen denetik diru-itzulketa egiten den eguna arte) itzul ditzan eskatuko da, proportzionaltasunaren printzipioarekin adostasunean eta Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluari jarraiki.

14. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

14.1. Arau-hausteei eta zigorrei dagokienean, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. Tituluan xedatutakoari jarraiki jokatuko da.

14.2. Zehapen-prozedura, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren gaineko abenduaren 3ko 15/2004ko Foru Legearen V. Tituluan ezartzen dena izanen da.

15. DIRU-LAGUNTZEEN ARAUDI OROKORRA

15.1. Oinarri arautzaile hauetan espresuki aurreikusten ez diren gaietan Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean eta aplikatu daitezkeen bestelako arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

16. HELEGITEAK, DEIALDIAREN ETA OINARRI ARAUTZAILEEN AURKA.

16.1. Honako oinarriak aplikatzearen ondorioz emandako egintzen aurka administrazioarekiko auzi-helegitea jarri ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien Salan, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazten edota argitara ematen den egunaren biharamunetik hasita. Honek ez du galarazten Atarrabiako Udalaren aurrean aurretiazko errekerimendua egiteko eskubidea, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezartzen den eran eta epeetan.

Atarrabian, 2026ko urtarrila

ALKATEA